



Arartekoaren 2019R-545-18 Ebazpena, 2019ko martxoaren 26koa. Horren bidez, Eusko Jurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari gomendatzen zaio ondoriorik gabe utz dezala iraungitze-ebazpena eta, modu subsidiarioan, honako hau gomendatzen zaio: diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak eskatzeko ezintasuna gertatzen den urtea zenbatzeko data bat etortzea prestazioaren ordainketa eteteko datarekin.

Aurrekariak

1.- Herritar batek Arartekora jo zuen, eta adierazi zuen ez zegoela ados Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eten izanarekin.

2017ko abenduaren 20ko iraungitze-ebazpenean jasotako arrazoiak honako hauek dira: *"Prestazioaren indarraldian (bi urtez) betebeharrak ez betetzeagatik bi aldiz etenda egotea. (Gizarteratzeko eta Diru-sarrerak Bermatzekoari buruzko 18/2008 abenduaren 23ko Legearen 28.1.e artikulua)*

Kexagileak berraztertzeke errekurtsoa aurkeztu zuen 2018. urteko otsailean; errekurtso horretan, bi etenaldien ebazpena ekarri zuten arrazoiekin bat ez zetorrela adierazi zuen, ezta iraungitzearen ondorioak hasteko datarekin ere.

Illo horretan, iraungitze horrek zein datatik aurrera dituen ondorioak argitu dadila eskatu zuen kexagileak, prestazioak berriz ere noiz eska ditzakeen jakin ahal izateko, hots, ea iraungitze-ebazpena agerrarazita dagoen datatik zenbatzen hasi behar den urtebeteko epea, edo bestela, Lanbidek prestazioak ordaintzeari utzi zion datatik, hain zuzen ezarritako bigarren etenaldiaren ondorioz.

2.- Azaldutakoa ikusita, Arartekoak lankidetzaz eskatera bat bidali zion Eusko Jurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari. Zehazki:

- a) Lehenengo etenaldian kexagileak bete gabe utzi zuen lege-agindu zehatza, Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egindako eta jakinarazi zuen bidaiaren epea gainditzeagatik.
- b) Prestazioaren ordainketa eten zitzean eguna ez zen ondorengo beste egun bat ezartzeko zer arrazoi dauden; horren arabera, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria ezingo dira berriz eskatu.
- c) Zer iritzi duzun helarazi dizkizugun gogoeten inguruan.



d) Aipatutako gertaerekin zerikusia duen edozein informazio interesgarri.

Horrez gain, Arartekoak aldez aurretiko zenbait ohar helarazi zizkion sail horri EAEtik kanpora egindako irteerak jakinarazteko betebeharrari lotuta; ez errepikatzearren, jarraian jasoko ditugu.

3.- Arartekora bidalitako Lanbideko zuzendari nagusiaren idazkiak bigarren etenaldia sortu zuten arrazoiak bakarrik argitu ditu, bai eta helbide aldaketak jakinarazteko beharrari buruzko azalpen bat ere nahiz eta prestaziorik jaso ez. Zehazki:

*“Lehen aldiz 2016/11/18an eten zen, Igorren, eta bigarrena, 2017/07/18an, jada Erandion. Beraz, espediente horren harira, **bulego honetan bigarren etenaldiari buruz baino ezin dezakegu erantzun, hemen egindakoari buruz, hain zuzen. Hala da, zure idatzian jasotzen duzun moduan, orientazio zerbitzuarekin zuen hitzordura ez bertaratzearen ondorioz eten zitzaion prestazioa; alegazioetan dio ez zuela gutuna jaso, besterik ez. Ez ikastaro batean ari zenik ez bizi zen etxearen jabearekin arazoak zituenik.***

*Bestalde, **Posta-zerbitzuak ziurtatzen digunean gutunaren jakinarazpena bizilekuan entregatu dela, guk egintzat eman behar dugu jakinarazpena. Pertsona asko etortzen zaizkigu esanez ez dietela gutuna eman, Postazerbitzuak ez diela entregatu, gutunak lapurtzen dizkietela postontzitik eta abar.***

4.- Egiatzatu ahal izan denez, Lanbidek lehen etenaldiari buruzko azalpen bat ez du igorri (2016ko azaroaren 23koa), eta goian adierazitako txostenean Arartekora helarazitako informazioaren arabera, txosten hau egin zuen bulegoa ez zen beste batek eman behar zuen

Horri erantzunez, Lanbideko zuzendari nagusiaren txostena jaso da berriki. Hauxe dio txostenak:

“Hau izan zen lehen etendura-prozedura gauzatzeko arrazoia: ‘DSBERako eskubidea izateko ezarrita dagoena baino epe luzeagoan Euskal Autonomia Erkidegotik kanpora irtetea. Kobratzeko eskubidearen denbora-epea: 2016ko irailaren 5etik 2016ko irailaren 19ra. Ez da jakinarazitako egunean itzuli: 2016ko irailak 20’.



Etendura horretan errekurso-jartzailarean alegazioa izan zen aldatu egin behar izan zituela bidaia-datak irailaren 11tik 28ra, eta, azkenik, 18 egun eman zituela EAetik kanpo. Errekurso-jartzaileak bere garaian Lanbideko bulegoari jakinarazi zion irailaren 20an bueltatuko zela bidaiatik, eta ez zuen bete bulegoarekin hitzartutakoa, irailaren 28an itzuli baitzen.

Bestalde, 2014ko uztailaren 18ko 2014-6 instrukzioak agintzen du enplegua eskuratzeko prest izan behar duen titularrak 15 egunetan bakarrik irten daitekeela EAetik, prestazioaren kobrantzari eutsita. Hori horrela, errekurso-jartzaileak alegazioetan adierazi zuen 18 egunez izan zela EAetik kanpo, eta, horrekin berretsi egin zuen urraketa; beraz, lehen etendura hori zuzena izan zen.”

Era berean, informazio-eskaerako b) puntuari erantzunik eman ez zaiola-eta, hots, honako hauen justifikazioa: *“Diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria berriz eskatzeko ezintasunaren ondorioei dagokien data zehazteko arrazoiak, prestazioaren ordainketa eten zeneko dataren ondorengo data hain zuzen”*. Arartekoak berriz eskatu zuen galdera horri erantzuteko.

Hona hemen erantzuna:

“Iraungitze-ebazpenaren ondoren-data argitzeko eskaerari dagokionez, adierazi behar da abenduaren 23ko 18/2008 Legeak 28.3 artikuluan, eta maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretuak, Diru-Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzkoak, 50.2 artikuluan hau arautzen dutela: urtebeteko epea iraungitze-datan hasiko da kontatzen. Iraungitze-data, beraz, zuzenbidearen araberakoa da.”

5.- Hortaz, beharrezkoak diren egitate- eta zuzenbide- elementuak ditugula uste dugunez, honako ondorio hauek atera ditugu:

Gogoetak

1.- Kexagileak eta bere seme-alaba adingabeek jasotzen dituzten prestazioak iraungitzea erabaki du Lanbidek, uste baitu bizikidetzaren unitatea Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28. artikuluan, prestazioak iraungitzeko kausei buruzkoan, aipatutako kasuan sartzen dela; Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko Errentari buruzko legea



aldatu zuen azaroaren 24ko 4/2011 Legeak hauxe dio 28. artikulua e) atalean:
"e) *Ez betetzeagatiko bi eten egotea prestazioa indarrean dagoen bi urteko aldia.*"

2.- Lehenbiziko etenaldia gertatu zen kexagileak ez zituelako bete jakinarazitako datak, zeinetan EAetik kanpora egongo zela jakinarazi baitzuen.

lido horretan, esan behar da Arartekoak hainbatetan adierazi izan duela gizarte prestazioak erregulatzen dituen araudiak ez duela ezartzen titularrek EAetik kanpora egindako irteerak eta EAerako sarrerak jakinarazteko inolako betebeharririk dutenik.

Lanbidek orain gutxi aztertu du gai hori honako dokumentu honetan: *Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen*¹. Hain zuzen, Arartekoak kontu honen gainean ekarri nahi izan zuen arreta: Lanbidek egin behar bat bete dadin eskatzen duela, legegile autonomikoak hizpide dugun eskubide subjektiboa erregulatzen duen araudian halako baldintzarik jaso ez bazuen ere.

Kasu honetan egiaztatu denez, irizpideak aplikatzea barruko kontu bat izatetik araubideko elementu gisa aplikagarri izatera igaro da eta, horren baliozkotasuna, gutxienik ere, eztabaidagarria da.

Arartekoaren iritziz, eskaera hori betebeharretan (dela EAEn benetan bizitzeko betebeharra dela enplegurako prest egotekoa) subsumitzea zuzenbidearen aurkakoa da. Ikuspegi hori bat dator administrazioarekiko auzien jurisprudentziaren hainbat adierazpenekin.

Gauzak horrela, Administrazioarekiko Auzien Gasteizko 1. Epaitegiaren martxoaren 4ko 44/2015 Epaiaren bigarren oinarri juridikoa nabarmendu behar dugu. Horren bidez EAetik kanpora egindako irteerak ez jakinarazteagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta eten zuen ebazpen baten aurkako administrazioarekiko auzi-errekurtsoa balioetsi zen. Idatzi horrek honako hau ezarri zuen irteerak Lanbideri jakinarazi ez izanari lotuta: "(...) *no estamos ante incumplimiento de obligación alguna conforme al artículo 12, citado por la administración en la actuación impugnada, sin concretar la específica obligación incumplida y sin que el hecho*

¹ **Arartekoa.** Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017. 5.3.2. puntua, 75. eta 137. or. [sarean eskuragarriak]: http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/0_4199_3.pdf



referido pueda subsumirse dentro de la obligación contemplada en el citado precepto de comunicar cualquier cambio relativo al domicilio de residencia habitual de la persona titular, que es claro que no se ha modificado en el caso que nos ocupa”.

Arartekoaren ustez, Lanbidek ezin du lotu EAetik kanpora egindako irteera bat ez jakinaraztea enplegurako prest egoteko betebeharrarekin; izan ere, betebeharrak hori zertan datzan argi eta garbi zehaztuta dago, eta ez du irteerak jakinarazteko betebeharra barne hartzen.

Ikuspegi hori dagoeneko aztertu zuen 156/2016 Epaiak, uztailaren 11koak, Gasteizko Administrazioarekiko Auzien 2. zenbakiko Epaitegiarenak. Laugarren oinarri juridikoaren edukia jasoko dugu, hain zuzen ere, interesgarria eta garrantzitsua delako:

“Tal y como se desprende del expediente administrativo, con fecha 22/09/2015, XXX formula solicitud de renovación de RGI, aduciendo la administración demandada que no comunicó la salida efectuada entre 01/06/2015 y 02/07/2015 fuera de la CAPV. La parte recurrente no contraviene el expresado fundamento fáctico, y así se corrobora en el folio 8 del e.a. del examen de su pasaporte.

Siendo éste el motivo sobre el que la administración demandada sustenta su resolución de no renovación hemos de concluir que no se comparte el juicio alcanzado por la misma, no sin antes expresar la insuficiente motivación de la resolución impugnada, en la que no se conecta normativamente el incumplimiento al parecer detectado con la concreta prescripción que habría sido inobservada por la actora, siendo el acto del juicio, el primer momento en el que la asistencia letrada de la administración demandada permite una concreta identificación de la normativa que a juicio de Lanbide ha sido vulnerada. Resultando incontrovertido que la parte actora ha efectuado la salida fuera de la CAPV a la que se hace referencia, hemos de concluir que nada más que una salida puntual constituye el hecho acreditado, sin que del mismo quepa inferir una modificación sobrevenida de las circunstancias sobre las que se sustenta la concesión de la prestación, ni en modo alguno, que la actora haya cambiado su lugar de residencia efectiva, ni que ésta no se hubiera encontrado disponible para el empleo. Del examen de las cuentas presentadas no se deduce con la exigible claridad a efectos de sustentar la decisión hoy combatida que la actora hubiera destinado el importe de la RGI a finalidad distinta que la de satisfacer sus necesidades básicas. No habiendo sido por tanto acreditado el incumplimiento de las obligaciones sobre la que se



residencia la decisión administrativa, procede la íntegra estimación del recurso contencioso administrativo".

Bidenabar, epai horrek aurreko bat aipatzen du, hain zuzen ere 2001/2015 Epaia, irailaren 30ekoa, argudio juridikoak emateko oinarri hartu dena. Horren harira, hauxe adierazi da:

"No encontramos en la legislación autonómica citada motivos o justificación para la retirada de la prestación subvencional por la ausencia de la CAPV de cinco días, pues no contempla la legislación estatal ni autonómica que ante tal ausencia se le deba retirar la prestación. (...)

Es la concreta regulación de las ayudas la que nos impide negar o retirar a quien se haya ausentado de la CAPV cinco días, por mucho que tenga que estar a disposición de Lanbide por posibles ofertas de empleo, manteniendo el empadronamiento y la residencia habitual, razón por la que, no podemos aceptar la retirada de la ayuda social, y debemos estimar el recurso".

Aztergai dugun kasuan, kexagileak Arartekoari jakinarazi zionez, nahiz eta berak jakinarazi zuen 5etik 19ra bitartean kanpoan izango zela, azkenean, datak aldatzea erabaki zuen, bidaiaren prezioa merkeagoa zelako. Horregatik izan zen kanpoan irailaren 11tik 28ra.

Hala eta guztiz ere, askotan esan izan dugun moduan, eskubide subjektibo hori araupetzen duen araudiak ez du bere artikulua batean ere ez da aurretiazko jakinarazpena egiteko betebeharririk EAetik kanpora joan ahal izateko. Bestalde, irtenaldiaren iraupena ere ez du araupetzen. Horrenbestez, Arartekoaren iritziz, ez du nahikoa arau-oinarririk eginiko etenaldiak, hau da, jakinarazitakoetan ez beste data batzuetan bidaiatzeagatik eta hasieran jakinarazitako baino hiru egun gehiagoz kanpoan izateagatik diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria eteteak.

Kexagileak justifikatu egin du zergatik aldatu zituen datak, hau da, arrazoi ekonomikoengatik; izan ere, zentzuzko justifikazioa da hori, epealdi berari baitagozkio bidaiaren datak.

Horrez gain, kontuan hartu behar da, kasu honetan gertatu bezala, prestaziorako eskubidearen indarraldian beste etenaldi bat izateak berekin dakarrela prestazioa urtebetean ezin eskatzea.



Horrenbestez, Arartekoak berriz dio garrantzizkoa dela urriaren 1eko 40/2015 Legearen 4.1. artikuluan ezarritako proportzionaltasun printzipioa betetzea: *“Administrazio publikoek, haien eskumenen barruan dihardutela, eskubide indibidualak edo kolektiboak gauzatzea murrizten duten neurriak ezartzen badituzte edo jarduera bat egiteko betekizunak eskatzen badituzte, proportzionaltasun–printzipioa aplikatu beharko dute eta murrizketa txikiena eragiten duen neurria aukeratu beharko dute, interes publikoa babesteko beharrezkoa dela arrazoitu eta lortu nahi diren helburuetarako egokia dela justifikatu, betiere diskriminazioa eragiten duten tratu-desberdintasunak baztertuz. Halaber, lortutako eragin eta emaitzak ebaluatu beharko dituzte aldizka.*

3.- Bigarren etenaldian, ebazpena 2017ko irailaren 23an izan zuen horretan, kexagilearen diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria aldi batez eteteari eustea erabaki zen, hauexek oinarri hartuta: *“No comparecer ante la administración ni colaborar con la misma cuando sea requerida para ello por cualquiera de los organismos competentes en materia de inclusión social”.*

Lanbideko zuzendari nagusiaren txostenean azaltzen zenez, lan-orientatzailearekin adosturiko hitzordu batera ez azaltzeak berekin dakar betebeharrak ez betetzea, eta hitzordura ez agertzea justifikatzeko kexagileak eman duen arrazoi bakarra hauxe izan zen: ez zuela jaso enplegurako erakunde autonomoak emandako entzunaldi-izapidea, abisua ematearen ondoretarako.

Ildo horretan, interesdunak bere kexa-idazkian adierazi du jakinarazpena helarazi zitzaien pertsonarekin partekatzen zuela etxebizitza, eta pertsona horrekin harreman onik ez zuenez gero, ez zion gutuna eman.

Diru-sarrerak bermatzeko errentaren titulartasunari dagozkion betebeharrak ezarri dira araudian, zehazki Gizarteratzeko eta Diru Sarrerak Bermatzeko abenduaren 23ko 18/2008, Legearen 19.i) artikuluan. Honako hau jasotzen da: *“i) Administrazioaren aurrean agertzea eta harekin lankidetzan aritzea, hori eskatzen bazaie; nolana ere, kontuan izango dira gizarteratzeko hitzarmenean aurreikusitako kasu bereziak.”*

Erakunde honen ustez, interesdunak kexa-idazkiarekin batera aurkezturiko dokumentazioa azertu ondoren eta informazio hori administrazio eskudunak



emandako datuekin erkatuta, ez da nahikoa egiaztatu prestazioaren titularra lan-orientatzailearekin zuen hitzordura ez azaltzeko justifikaturiko kausarik egon izana.

4.- Horrez gain, adierazi dugun bezala, esku artean dugun kasuan diru-sarrerak bermatzeko errenta iraungitzeaz batera prestazio hori iraungi zitzaion egunetik zenbatzen hasita urtebetez hura berriro eskatzea debekatu zaio interesdunari, azaroaren 24ko 4/2011 Legeak aldatutako abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3. e) artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Araudian hauxe ezarri da zehazki: *“Prestazioa azkentzeko arrazoia betebeharrak ez betetzea edo arau-hausteak egitea izan bada, titularrak ezin izango du berriz ere diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatu, edozein izanik ere modalitatea, eskubidea azkendu den unetik urtebete igaro arte. Ondorio bera ekarriko du artikulua honen 1.d eta 1.e paragrafoetan azaldutako arrazoiengatik azkentzen bada eskubidea.”*

Lanbideren irizpideei² buruzko dokumentuak ez du zalantzarik uzte hauxe dioenean 8.4. atalean: **“Zigor-urtea iraungitze-ebazpenaren egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.”**

Alabaina, egiaztatu denez, bigarren etenaldiaren ebazpenetik eta iraungitzeko prozedura hasten denetik hainbat hilabete igarotzen dira askotan eta, beraz, erakunde honek zenbait gogoeta aurreratu izan ditu zigorrari dagozkion hilabete horiek zenbatzeko moduari buruz.

Ildo horretan, bere iritzia *Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituen, 2017* delakoan emateko aukera izan du. Orduantxe azpimarratu zen garrantzizkoa dela abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3. artikuluan ezarritako kasuak iraungitzeko data argitzea, hots, diru-sarrerak bermatzeko prestazioa ezin jaso daitekeen urtea zenbateko unea zehaztea..

Berariaz, hauxe zioen: ***“Data horrek bat egin beharko luke prestazioa ordaintzeari uzten zaion hilabetearekin; bestela, aurretik prestazioa etetea eta prestazioaren ordainketa etetea erabaki bada, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen 28.3 artikuluan ezarri dena baino gehiago luzatuko litzateke prestazioa berriro eskatzeko ezintasuna.”***



Izan ere, baldin eta prestazioaren 2 urteko indarraldian bi aldiz iraungitzen bada prestazioa, bigarren ebazpenetik eta prestazioa desegiteko prozesua hasi arte igarotako denbora aldakorra izaten da. Zenbait kasutan, hemen azterturikoa bezalakoetan, 3 hilabete ere igaro izan dira data batetik bestera –ikus bedi bigarren etenaldiko data 2017ko irailaren 23koa dela eta iraungitze-ebazpena abenduaren 20koa-. Era berean, epealdi iragankorra sortzen da, eta, berriz diogu horren iraupena zein den ez dagoela jakiterik. Administrazioaren eskuetan gelditzen da, berak erabakitzen baitu noiz hasi desegiteko prozedura. Tarte horretan, prestazioen titularrak ez du diru-sarrerak, baina, hala ere, ez da hartzen kontuan 12 hilabeteko epealdia, non berriz ere diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzerik ez dagoen.

Baliagarria da aipatzea, kasu honetan analogiaz, etenaldiaren iraupenari buruzko 147/2010 Dekretuko 45. artikulua. Izan ere, manu horretan, Diru Sarrerak Bermatzeari eta Gizarteratzeari buruzko Legea aldatu zuen azaroaren 24ko 4/2011 Legean ezarritako berrikuntzaren ondoren, hauxe ezarri du 26.2. artikuluan: gizarte babeserako euskal sistemaren prestazioak eteteko gehieneko epealdia 12 hilabetekoa izango dela: *“1.- **Ordainketa etetea eragin duten zirkunstantziek irauten duten bitartean jarraituko du eteteak, gehienez ondoz ondoko hamabi hilabeteko aldirako, eta hori igarotakoan, prestaziorako eskubidea azkenduko da. (...)**”*

Hori ikusita egiaztatzen denez, araudian soilik urtebeteko epea ezarri da prestazioaren ordainketa eteteko. Aitzitik, prestazioaren bi urteko indarraldia ez betetzearen ziozko bi etenaldi daudela-eta -18/2008 Legeko 28.1 e) artikulua- diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestaziorako eskubidea erabakitzen deneko prozeduretan (halaxe gertatzen de espediente honetan), prestaziorik handienaren ordainketa eteteko iraupena aplikatzen ari da Lanbide, zeren eta araudian ezarritako urteari prestazioaren ordainketaren aurreko etenaldia gehitu behar baitzaio. Epealdiaren iraupena ez dago zehazterik. Horrez gain, izandako jokabidearen larritasuna ere ez da kontuan hartzen eta, beraz, Arartekoaren ustez, urratu egiten da segurtasun juridikoaren eta proportzionaltasunaren printzipioa.

Horren ondorioz, aztergai dugun moduko kasuak gertatzen dira, non prestazioaren ordainketa 2017ko irailean gertatu den, eta prestazioa iraungitzeko ebazpena ez da

² 2018ko otsailaren 26an eginiko kontsulta:

http://www.lanbide.euskadi.eus/contenidos/informacion/rgi_criterios/es_def/adjuntos/Criterios_RGI_mayo_2017.pdf



urte bereko abendura arte eman, halako moldez non urtebetetik gorakoa baita prestazioen ordainketaren benetako etenaldia, kasu honetan 16 hilabetekoa.

Arartekoak askotan jakinarazi izan du ez dagoela ziurgabetasun-marjina hori izaterik, bai: **“16^a Data, prestazioa eskatzeko ezintasuna ezarrita dagoen urtebeteko epea zenbatzeko, prestazioaren ordainketa eteten den datarekin bat etortzea”** delakoan berariaz proposatzen zuen txosten-diagnostiko horretan, bai Lanbiderekin izandako bileretan.

5.- Laburbilduz, azaldutakoa ikusita, erakunde honek nabarmendu behar du, lehenik eta behin, diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren araudiak ez dakarrela EAetik kanporako irtenaldiak jakinaraztearen inguruko betebeharririk, ezta edozein bidaia egiteko denbora baimena nahitaez bete beharra ere.

Horrez gain, prestazioak berriz ere eskatzeko ezintasunari dagozkion 12 hilabeteko zenbaketa hasteko datari dagokionez, erakunde honek uste du prestazioa ordaintzeko etenaldi materialari dagokiona izan behar duela une horrek, batez ere azaldutakoa bezalako kasuetan, non prestazioa desegiteko prozedura berandu hasteak berekin baitakar prestazioen bizikidetzta-unitateak prestaziook jasotzeari uzten dien hileetan.

Horregatik guztiagatik, otsailaren 27ko 3/1985 Legeak —erakunde hau sortu eta arautzekoak— 11 b) artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, gomendio hau aurkezten zaio Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailari:

Gomendioa

Arartekoak prestazioa iraungitzeko ebazpena ondoriorik gabe uztea gomendatzen du, ez direlako egon bi etenaldi eskubidearen indarraldian betebeharrak ez betetzearen zioz, ez baita izan lehen etenaldia erabakitzeko kausarik.

Subsidiarioki, Arartekoak berriz ere aipatu nahi du *Diagnostiko-txostena, Lanbidek diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta etxebizitzarako prestazio osagarriaren prestazioak hobeto kudeatzeko proposamenak jasotzen dituena, 2017 izeneko dokumentuan bildutako gomendioa: **“Data, prestazioa eskatzeko ezintasuna ezarrita dagoen urtebeteko epea zenbatzeko, prestazioaren ordainketa eteten den datarekin bat etortzea”***